

21ekoa



Bostekoa

Alex Silva

Astegun iluna da, umel horietakoa. Euskal Herrian, negutik udaberrirako trantsizioan ohituta gauden horietakoa. Arratsalde-gau partean, ilunabarrean, salan sartzen naiz. Aрги baxuz jantzen dut nire gunetxoa, nire erreinua eta Kalakan taldearen azken diskoa hartzen dut apaletik. Gatiburen *Zazpi kantoietan* eta GOSEren *III* diskoen artean dago — bai, oraindik CDak erosten dituen horietakoa naiz —, baina zerbait arraroa du. Hamaika kantu eta laurden ditu bakarrik, ez hamahirurak. Musikak pixkanaka betetzen du etxea. Doinu lasai eta gogorak, tarteka nahasturik. Makrodenda suediar ezagun batean erositako kandela usaintsuak jartzen ditut mahai gainean, baita piztu ere.

Sofa zuriaren gainean erdi-etzaten naizen bitartean, bertan dudan liburua hartzen dut esku artean, Harkaitz Canoren *Twist*.



Zein da kulturaren balioa? Zein da kulturaren salneurria? Zein da bidezko prezioa? Eta tasa?... Eta doako kultura, kultura da? HITZA

Honek ere, badu zerbait berezia. Argaldu egin da. Orriak zenbaitzen hasi, eta 90 falta dira.

Ez dut gustuko liburu bat amaitu gabe lagatzea, are gutxiago amaiera falta bazaio. Horregatik, berriro jaiki eta ohe alboko mahaitxoan kargatzen dudana *e-book* irakurgailua hartzen dut. Argindarretik askatzen dut.

On botoiari sakatu ostean, Jansone Osororen eleberri bat bistaritzen da pantailan, txuri-beltzean. Bi gorputz elkar lotuak, argaz-

ki zoragarria: *Korapiloak*. Ez dakit honi ere orriak edo zatiak falta ote zaizkion, baina digitalak ematen duen aukera da behintzat, orri kopurua egokitu daitekeela. Hala ere, ez da aukera bakarra. Digitalak, saretik, doan, *pirata* gisa, deskargatzeko aukera ere ematen du. Kulturaren %21eko BEZ ekidinez. Baina ez BEZ bakarrik, baita autorearen lana, errekonozimendua, meritu... ordaintzea ekidituz. Pentsatu une batez. Eta zu egile hori bazina?

Gogorra, ezta? Dena den, gogorrena administrazioetatik bultzatutakoa da. Kulturaren heriotza programatua. Bada, dagoeneko, denbora BEZ igo zena, eta askok pentsatuko zenuten ea zertara datorren orain honetaz idaztea, baina, liburuaren eguna pasa berri da.

Paperaren osasuna ez da ona une honetan, eta horrelako politikak ez diotela laguntzen uste dut. Gogoeta egin dut. Zein da kulturaren balioa? Zein da kulturaren

salneurria? Zein da bidezko prezioa? Eta tasa?... Eta doako kultura, kultura da? Ez ditut erantzun egokiak edo argigarriak bildu galdera horiek guztiak erein ondoren. Baina garbi ikusi dut administrazioek eta erakunde publikoek, politikoen laguntzaz, ez dutela kulturarik sustatuko, ez dutela kulturarik ereingo, ez dutela kulturarik babestuko. Kultura saltzeko baino gehiagorako balio du. Garrantzitsuago oraindik, pertsonen arteko harremanetik sortzen da eta pertsonen hezkuntza pertsonal eta sozialean eragiten du. Tasak eta zergak biltzeko tresna baino gehiago da, zailtzarik ez izan.

Kultura ondare edo altxor publikoa dela esango nuke. Baita Aristik, Urretabizkaia edo Atxagak sortzen duten hori ere. Izan ere, besteen eraginez jantzitako obrak idazten dituzte. Elkar kutsatzen baikara guztiok, elkarri.

Hala ere, salneurriarena ez da gai erraza. Askok diote, preziorik ez duten gauzak ez dutela baliorik. Ez nago ados. Baditugu gure herrian adibide garbiak. Orain gutxi zendu zen Imanol Elias, kasu. Herriaren historiaz, kulturaz eta sustapenez lan gogor ugari egin baditu ere, ez du kobratu horien truke, eta ikaragarritzko balioa du haren lanak.

Hori bai, bere lanari salneurria jartzen hasita, ez nioke nik %21eko BEZik gehituko.